



Udako denboraldia hasi da

Hipodromora itzuli dira zaldi lasterketak; aurreneko jardunaldiak atek itxita jokatuko dituzte, zalerik gabe / 11

Geletara itzuli dira

Beharrezko neurriak hartuta, Oriarte BHIIn klase presentzialei berrekin diete aste honetan / 8

Merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresetara bideratutako dirulaguntzak onartu ditu udalak / 2

Kirol elkarteekin errepasoa: aste honetan, Lasarte-Oria Trail eta LOKeren tenis alorra / 9-10



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

AURREMATRIKULA

Ekainaren 1etik 19ra (biak barne)

nola egin?

- on-line: ikasgunea.euskadi.eus
- Ikastetxean: txanda hartuta:

943364600

DOKUMENTAZIOA:

NAN eta Ikasketa espedientea

Informazio gehiago: www.lhusurbil.eus





Agustin Valdivia alkatea eta Nuria Fernandez Sozioekonomia batzordeburua. TXINTXARRI

500.000 euro herriko saltoki guztiei laguntzeko

Merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzu pertsonaletako establezimenduek COVID-19aren ondorioz jasandako kalteak arintzeko bideratuko duen dirulaguntzaren oinarriak onetsi ditu. Asteartean eman dute horren berri

Txintxarri

Lasarte-Orian soldatapeko gehienez 15 langile dituzten merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzu pertsonaletako establezimenduentzako bideratuko den dirulaguntzaren oinarriak aurkeztu ditu udalak. Dirulaguntza horien barruan, bi lerro bereizi dituzte, eta osasun krisiak bakoitzaren negozioan izandako eraginaren arabera eskatu ahal izango da bat edo beste. Lehen lerroa, autonomoen jarduera eten dutela egiaztatzen duten establezimenduentzat edo apirilean diru sarrerak % 75 baino gehiago murriztu zaizkienentzat –alarma-egoeraren aurreko sei hilabeteen batez besteokarekin alderatuta– zuzenduta dago, eta 750 eurokoa da oinarritzko kopurua. Bigarren lerroa, berriz, diru sarreraren murrizketa % 50 eta % 75 artekoa izan duten establezimenduentzat izango da, eta oinarritzko kopurua 500 eurokoa. Oinarritzko diru laguntza horiek osagarriak ere izango dituzte, eta hoiak eskuratzeko, zenbait baldintza bete beharko dituzte interesatuek.

Alkateak jakinarazi duenez, udalaren diru laguntza hori bateragarria da erakunde publiko edo pribatuek emandako beste edozeinekin laguntzarekin.

Lanketa sakonaren emaitza

Alkateak adierazi du apirilaren 1etik, Aterpearekin hasierako proposamenak

jasotzeko lehen bilera egin zuenetik, hiru bilera egin dituztela merkatarien elkartearekin, beste hiru Ostalaritzako Elkartearekin eta bi bilera bi elkarteekin batera. Horrez gain, bozeramaileen batzordeak astero, udaleko talde politikoen eta teknikarien arteko bilera bat eta batzorde bat egin duela ere jakinarazi du: "Bilera horietan, sektoreak egindako eskaerak eta gure ahalmenen arabera jarduteko proposamenak jaso dira, horien berri emanaz".

Bilera horietako eskaerei erantzunez sortu dituzte diru laguntzaren oinarriak. Argitu dute, hasierako zenbatekoa 125.000 eurokoa zela, eta horri 375.000ko sorta gehituta, 500.000 euroko diru laguntza osatu dutela. Horrekin batera, ostalaritzako terrazai % 100eko hobaria aplikatzeko erabakia ere hartu dutela esan du, eta ahal izan den guztietan terrazen kopurua eta okupazioa ere handitu egin dela, "50 establezimendu baino gehiagori erantzuna emanaz".

Udal ordezkariak azaldu dutenez, eskaera bakarrari ezin izan diote erantzun; Kale Nagusia itxeari. Hain zuzen ere, udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak baimena lortzeko gestioak egin dituztela azaldu dute, baina herriko garraio zerbitzuan "ondorio handiak" sortuko lituzkeela argudiatuta, "bidera ezina" gertatu da eskaera.

Oinarriak eta baldintzak

Dirulaguntzen kopurua

- Bi dirulaguntza lerro bereizi dituzte. Lehen lerroaren oinarritzko kopurua 750 eurokoa da eta bigarrenarena, 500 eurokoa.
- Dirulaguntza osagarriak eta baldintzak:
 - 200 euroko osagarria baldin eta onuradunak jarduerarako darabilen negozio-lokala errentan badauka, edota jarduerarako negozio-lokala erosteagatik hipoteka mailegua edo mailegu pertsonala badu jarduerarako darabilen negozio-lokala erosteagatik.
 - 100 euroko osagarria baldin eta enpresak soldatapeko bat eta bost langile artean baditu, edo 200 euroko osagarria, baldin eta enpresak soldatapeko sei eta hamabost langile artean baditu. Baldintza horretarako laguntzaren onuraduna ez dute kontuan hartuko.
 - 150 euroko osagarria, baldin eta langile taldean soldatapeko langileen %50a gutxienez emakumeak badira.

Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Laguntzak onartu eta hurrengo egunean hasiko da eskaerak aurkezteko aldia, betiere haien erakustaldi publikotik ateratzen den arte baldintzatua eta deialdiarekin batera GAO n argitaratu ondoren jarriko da behin betiko indarrean, eta Alarma Egoeraren amaiera deklaratu eta ondorengo 30 egun naturaleko epean amaituko da. Diru-laguntzen eskaerak I. eranskinean jasotako ereduak aurkeztu beharko dira, Mirentxuko ekitaldi-aretoan. Horretarako, 628 694 138 telefono zenbakira deituta hitzordua eskatzea ezinbestekoa izango da. Modu telematikoa ere aurkeztu ahal da eskaerak www.lasarte-oria.eus atarian.

Beharrezko dokumentazioa

Eskaera-inprimakiarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Norberaren kontura ari den langilearen edo autonomoaren NANA/AIZ, edota, laguntza enpresa batentzat eskatzen denean, enpresaren IFK edo enpresa eratzeko eskritura.
- Zinpeko adierazpen bat, non adieraziko baitu prestazio honetarako eskubidea izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela.
- Enpresa itxteagatik eskatzen bada, Langile Autonomoen Jarduera Etearearen ebazpena (CATA).
- Diru-sarreraren galeragatik eskatzen badu, hori justifikatzen duen kontabilitateko informazioa aurkeztu beharko du, une horretan eskuragarri badago.
- Ea eskatzaileak eskuratu duen Estatuak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo beste edozein erakunde publikok iragarritako ezohiko laguntzen edo diru-laguntzen beste lerroren bat.

Gastuaren justifikazioa eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Egiaztagiria 2020ko urriaren 15era arte aurkeztu ahal da, eta honako agiri hauekin batera:

- Jaulkitako eta jasotako fakturen erregistro-liburuaren kopia; diru-sarreraren eta gastuen liburu egunkariarena; salmenten eta sarreraren erregistro-liburuarena; edo erosketen eta gastuen liburuarena. Aipatutako kontabilitate-agiri horiek eramatera behartuta ez dauden autonomoen kasuan, zuzenbidean onartutako edozein frogabide onartuko da. Lehen lerroko eskaeren kasurako, baldin eta eskatzaileak eskuratu badu Estatuak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo beste edozein erakunde publikok iragarritako ezohiko laguntzen edo diru-laguntzen beste lerroren bat, eta laguntza jaso ahal izateko eskatutako baldintzak (jarduera itxia edo diru-sarreraren % 75 edo gehiago galtzea, osorik edo parte batean, bat badatoz hemen eskatzen direnekin, nahikoa izango da erakunde horietatik dagokien laguntzaren kontzesioa jaso izanaren sinestamenduak aurkeztea, argi eta garbi identifikatuz laguntzen edo diru-laguntzen lerroa, laguntza ematen duen organoa eta horretarako eskatzen diren baldintzak. Kasu honetan, ez da beharrezkoa izango aipatutako liburuak edo adierazitako beste edozein frogagiri aurkeztea.
- Eskatutako laguntzaren osagarrietarako:
 - Jarduerarako darabilen negozio-lokala errentan edukitzeagatik.
 - Negozio-lokalaren errenta kontratua eta jarduera itxi aurreko azken bi hilabeteetako fakturak eta frogagiriak.
 - Jarduerarako darabilen negozio-lokala erosteagatik hipotekazko mailegua edo mailegu pertsonala izateagatik.
 - Jabetzako eskriturak eta hipotekazko maileguaren edo mailegu pertsonalaren formalizazioak, bai halaber jarduera itxi aurreko azken bi hilabeteetako kuoten frogagiriak.
 - 2020ko martxoaren 14an dituen langileen kopuruarengatik: 2020ko otsaileko langileen zerrenda izenduna (aurreko TC2).
 - Soldatapeko langileen %50 gutxienez emakumeak diren kasurako, enpresako langileen zerrenda, NANA.



Herriko merkatari bat Mercero gunean Aterpeak prestatutako segurtasun kita jasotzen. TXINTXARRI

Bezeroen osasuna zaindu eta konfiantza saritu

Asteon banatuko ditu Aterpeak segurtasun kitak. Material ezberdinekin osatutako 478 poltsa prestatu dituzte herriko establezimendu guztientzat. Horrez gain, 'Orain gure txanda da' kanpaina ere martxan jarri dute, bezeroen fideltasuna aitortu eta saritzeko

Txintxarri

Astelehen arratsaldean hasi dira segurtasun materialen kitak banatzen. Mercero gunera gerturatu dira herriko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzako jabeak, eta Aterpeko bi kideren eskutik jaso dituzte hainbat produktu.

478 sorta prestatu dituzte guztira. Bakoitzean, Usurbilgo Lanbide Eskolak egindako segurtasun maskara, gel hidroalkolikoa, desinfektatzailea eta hiru ohar argigarri jasoko dituzte bila joaten diren herriko

merkatariak. Jakinarazi dute sorta horiek ez direla soilik Aterpeko kideentzat; elkarteko kide ez diren merkatari, ostalari eta zerbitzuetako jabeak banatuko dizkiete. Hortaz, interesa dutenek, Mercero gunera joan beharko dute astean zehar, arratsaldean, 15:00tatik 16:30erako ordutegian.

Kanpaina berria martxan

Itxialdia arintzen joan ahala antzeman dute lasarteiarren "babes eta berotasuna". Horrela, herritarren fideltasuna

aitortzeko *Orain gure txanda da* kanpaina berria abiatu du Aterpeak. Caja Rural banketxearekin elkarlanean ari dira, hortaz, lasarteiarrek banketxe horretako txartelarekin egiten dituzten erosketen arabera, 5, 10 edo 50 euroko sariak jasoko dituzte txartelean.

Bezeroekin berriz elkartzeko "ilusioz" daudela adierazi dute Aterpeko kideek. Bi aste igaro dira berriro ere ateak zabaldu zituztenetik, eta ordura arte egiten zuten lan berari ekiteko gozoz agertu dira.



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

Irakasle maitea

Irakasle maitea, martxoaren 13an jaso zenuen bapatean eskolak itxi egingo zirenen mezua. Egunak ziren korridoreetan lankideen artean koronabirusaren inguruan hitz aspertuak egiten zenituela baina hezkuntza sailetik ez ohartarazpenik, ez inolako mezurik, ez eta abisurik. 13an guztia itxi, 10-11 urteko ikasleei azalpen labur eta hotz bat eman eta denok etxera.

Hortik aurrerakoa ez da hobe izan. Hezkuntza Sailaren oharrik jaso gabe irakasleak antolatatu egin zirenen, haurra erdigunean jarri eta epe muga finkorik ez zuen boladari, aurre egiteko prest zeundeten. Handik bi astera, udaberriko oporraldia zetorren eta orduko hartan zenbait sektoreren aldetik, lehen kezak entzun hasi ziren. Zergatik oporraldi honetan eskolekin ez jarraitu?

Irakasleagoak aurrera egin zuen eta pertsona erdigunean jarritz, ikasturterako antolakuntza berri batetarako plana martxan jarri zen. Kasu honetan, haurraren alderdi akademikoa ere kontutan hartuz, lanean jo eta su ibili ostean, ahots batzuk goratu ziren. Orain ez omen zen garrantzitsuena alderdi akademikoa. Batzuk, ahaztuta zeuden, lehen unetik irakasleek pertsonaren ongizatea bilatu zutela eta alderdi akademikoa bigarren mailan utzi zutela. Hirugarren batzuk, jada hasiak ziren esaten ikasturtea galduko zutela eta euren bizitzetan sekulako eragin tamalgarriak izango zituztela eta teoria itzelak ateratzen hasi ziren. Langileek tinko eutsi zioten lanari. Langileek diot, oraindik hezkuntza sailetik ez baitzen, kasu batzuetan, haurren eguneroko traumatiko berri horretan nola jokatu adierazi, ez baitzen inolako prestakuntza berezirik eskaini, orain arte telelanean aritzera ohitu gabeko sektore bati laguntzeko ez zitzairen bitartekorik eskaini eta ez zegoen kontziliazio familiarerako inolako planik. Politikarien kudeaketa zalantziatiaz haratago, langileen kudeaketa eraginkorraz hitz egin beharko genuke.

Hala eta guztiz ere, ikasleek dinamika hartu zuten eta euren aldetik eskerrak jasotzen ere hasi ziren batzuk. Beste kolpe polit bat etorri zen ordea maiatz bukaeran. Hezkuntza sailak lanean ari zirela justifikatze aldera edo, eskolarako itzulerara derrigortu zituen irakasleak. "Irakasleak lanera itzuliko dira" hedabideen eta sailburuaren titularrak egun horietan. Itzuli? Orain artekoa ez al zen ba lanean aritzea izan? Gonbidatuko nuke bat baino gehiago hezkuntza komunitatearen egunerokoa ezagutzera pandemia honetan, noski beste hainbat alorretan bezalatsu. Kasu gehienetan ikaslerik gabe, etxean egiten ari ziren lan hori euren etxebizitzetatik kilometro askotarako joan etorriak kontuan hartu gabe eta eskoletan modu honetara lan egiteko dauden baliabideak eskasak izanda; hori da orain planteatzen dietena. Horretara ere moldatzeko bidean dira. Musukoak etxetik, eramangarriak etxetik, eta guztiaren gainetik dagoen osasuna lurretik.

Zeren izenean guzti hau? Ez dakigu, baina diru kontuek eta hauteskondeek zerikusia dutelakoan nago. Orain udako oporraldia dator. "Irakasleek opor gehiegi izaten dituzte". Hau izango dugu hurrengoa.

ESKULANAK
LH3, LH4, LH5 eta LH6koak

LARUNBATEAN, EKAINAREN Gan 11:00etan
ESKULAN DESBERDINAK IKASIKO DITUGU!

Jitsi erabiliko dugu. Ordenadore, tablet edo mobila erabili daiteke.
<https://meet.jit.si/GazteKlubaEskulanak>

Saiorako material hau eskura izatea gomendatzen dizuegu:
plastikozko edalontzi bat, koloretako artileak, gorazeak eta kola.

Izena ematea ez da derrigorrezkoa baina aurretik abisatzea eskertuko genuke: aisia@ttakun.eus edo 695783392

TXINTXARRI
PUBLIZITATEA:

Bertan zure zerbitzuak iragarri nahi dituzu?

publizitatea@ttakun.eus
943 371 448 (106)
646 82 44 66

Geltoki kalea 4,
Lasarte-Oria

NOAOA
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA
943 37 36 13
Ordutegia: **09:30-13:30**
Aurretiko hitzordua beharrezkoa da
info@noaoa.eus



Lasarte-Oriako EH Bilduk Leroy Merlin merkatalgunearen jasangarritasun eza salatu du asteon. TXINTXARRI

EH Bildu: "Leroy Merlin ez da jasangarria"

Hirigintza batzordean PSE-EE eta EAJren babesarekin jasota, datorren asteko osteguneko udalbatzarrean bozkatzeko dute Leroy Merlin enpresak Errekalden egin nahi duen merkatalguneari buruz. EH Bildu uste du posible dela egitasmoa geratzea

Txintxarri

Lasarte-Oriako udal taldeek Leroy Merlin enpresak Errekalden egin nahi duen merkatalgunearen behin behineko proiektua aztertu dute astelehenean, Hirigintza batzordean. Proiektuak PSEE-EE eta EAJren babesarekin aurrera egin du eta ekainaren 11n udalbatzarrera eramango da gaia. EH Bildu aurkako bozka eman zuen Hirigintza batzordean eta proiektua gelditu daitekeela iritzita, agerraldia egin du asteon.

Lasarte-Oriako merkatariei babesarekin eskaini eta proiektuak egun lehenesten diren jasangarritasun politikak betetzen ez dituela salatu du alderdi abertzaleak. Esate baterako, proiektua Donostialdeko Lurralde Zatiketa Plana eta Lurralde Antolaketa Gidalerroak merkatalgune periferikoak egitearen aurka eta Eusko Legebiltzarrak merkatalguneak eraikitzearen inguruan aho batez onarturiko 10/2019 legearen kontra doala.

Azken lege horrek proiektuan eraginik ez duela ere azaldu dute. Izan ere, legea onartu aurretik aurkeztu baitzen Teresategi eremuan egingo den merkatalgunea. Legeak zehazten diren baldintzak ez dira betetzen proiektuan, ordea eta atzera botaz gero, EAEko beste edozein herritan ez dela eraikiko jakitera eman dute. "Azalera handiegia du, legearen arabera. Udalak merkatalgune hau ez eraikitzea onartuko balu, ez litzateke beste herri batean eraikitzerik izango".

Itxialdi egoeratik ateratzen ari garen honetan, EH Bildurentzat herriko merkatariek kaltetuko dituen proiektu bat aurkezteak "ulergaitza" da, eta PSE-EE eta EAJren lehentasunak zalantzan jartzen ditu. "Behin eta berriro

**ELKARRETARATZEA
EGIN DU OKENDON
HERRITAR TALDE
BATEK, PROIEKTU
HORREN AURKA**

erakusten dute, pertsonen aurretik, negozioa lehenesten dutela".

Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiarentzat ere izan ditu hitzak. ELOP alderdiko ordezkaria abstenitu egin zen bozkan. EH Bildu David Ares ordezkari duen alderdiak gaiarekiko duen "ekidistantzia" azpimarratu du.

Horrez gain, alderdi abertzaleak udalak herritarren erabakiari muzin egin izana salatu du. "Gogoratu nahi dugu, Hirigintza Herritarren Aholku Batzordeak proiektuaren aurkako jarrera azaldu zuela eta ez zitzaioela kasu egin". Era berean, proiektuaren parte-hartze memoria "penagarria" dela uste du EH Bildu.

Alderdi horrek ez ezik, herritarrek ere Teresategi eremuan egingo den proiektuaren aurkako iritzia erakutsi dute. Ostegun arratsaldean, ekainak 4, 19:30ean, elkartu dira Okendo plazan. *Leroy Merlin bai ala ez Gu herriko merkataritzaren alde* lelopean protesta egin dute.

Udalak ez ditu Udako Txokoak antolatuko aurten

Covid-19ak sortutako egoerari aurre egiteko ezarri diren babes neurriak "ongi" bermatu ezin dituela erabaki du

Txintxarri

Azken hilabeteetan Udako Txokoak antolatzeko prestaketa lanak egiten aritu bada ere, udalak erabaki du ezin dituela ongi bermatu COVID-19ak sortutako egoerari aurre egiteko ezarri diren babes neurriak. Prentsari bidalitako ohar bidez jakinarazi du erabakia.

Udalak "prest" ditu bai haurrak matrikulatzeko baliabideak, bai Udako Txokoak gauzatzeko giza baliabideak eta egitarau egokituak ere, baina baloratu du adin-tarte horretako haurrekin ezin direla ziurtatu "birusaz kutsatzea ekiditeko ezarritako baldintzak". Ondorioz, udalak erabaki du hobea dela jarduera bertan behera uztea.

"Haurren inguruan lehenesten duguna osasuna eta segurtasuna denez, gizarte erantzukizunaren hausnarketa sakon baten



Udalak prest zeukan diptikoa. TXINTXARRI

ondorioz, erabaki honekin Udalak haur horien zein gainerako parte-hartzaile, antolatzailer eta inguruko edozein familiar edo lagunengaz eta osasuna bermatu nahi izan du eta aldi berean koronabirusaren hedapena saihestu", adierazi du.

Arreta presentziala, "ezinbesteko kasuetan" bakarrik

Lasarte-Oriako Bake Epaitegiak jakinarazi du telefono eta posta bidezko arreta lehenetsiko duela Alarma Egoerak irau bitartean. Herritarrek fisikoki artatuko ditu, baina "ezinbesteko kasuetan" soilik. 943 37 16 29 zenbakira deitu behar da aurrez hitzordua hartzeko edo telefonozko arreta jasotzeko. E-maila: bakeepaitegia@lasarte-oria.eus.

Lasarte-Oriako artisten datu-basea berritzeko deia

Gazteria eta Jaietako zinegotzi Txus Alonsok herriko artisten datu basea berritzeko deia egin du. Erregistroa zabalik egongo da alor hauetan lan egiten duten artistentzat: musika, literatura, margoa, konposizioa, zinema, malabarismoa, abestia, dantza, bertsolaritza eta beste edozein diziplina artistikoa. Interneten eman behar dituzte datuak artistek.

Ura eta estolderiaren tasa kobratzen hasiko da udala

Covid-19ak eragindako egoera tarteko, Lasarte-Oriako Udalak zehaztu du ezin izan dituela ur-kontagailuak irakurri aurreneko lauhilekoan. Hori dela eta, erabaki du "gutxieneko kontsumoa" kobratzea ur eta estolderiaren zergan, tarte horretan. Pagatzeko borondatezko epea ireki du, ekainaren 1etik uztailaren 30era. Tasa hori

helbideratuta dutenei uztailaren 30ean kobratuko zaie.

Udalak nabarmendu duenez, lehenengo lauhileko irakurketak "finkatutako epeez kanpo" egingo balitu, "ohiko kontsumoa baino zenbatero handiagoko erreziboak" kobratuko lituzke kasu gehienetan. Erabaki du 2020ko aurreneko lau hilabeteetan "gutxieneko kontsumoa" kobratzea, eta urrira atzeratzea gainkontsumo horiek, gertatuko balira, "herritarrek pairatzen ari diren ondorioak moteltzeko helburuz".



Pasa den ostiralean, euskal presoek eskubideen aldeko aldarrikapen ekitaldian parte hartu dute herritarrek. TXINTXARRI

Presoen aldeko aldarria kalera itzuli da berriro

Koronabirusak eragindako itxialdiak behartutako bi hilabeteko etenaren ostean, euskal presoek egoera salatzeko mobilizazioa berriro gauzatu dute Lasarte-Orian. Sarek deituta, 115 bat lagun batu dira, ostiral arratsaldeko enkartelada ibiltarira

Txintxarri

Hilabeteko azken ostiralean egin ohi duten moduan, Lasarte-Oriako Sarek deituta, euskal presoek aldeko ekintza egin dute. Hitzordua baliatu dute *Izan Bidea* egitasmoaren nondik norakoak azaltzeko.

Elizatze plazara bertaratzen joan dira herritarrak, 20:00ak aldera. Pankarta eusten zuten bi kideen atzealdean eta inguruan kokatzen joan dira, tartea utzita, eta "Izan Bidea" zioten kartelak banatu dizkiete. Ekintza hasi aurretik higie nahiz segurtasun neurriak mantentzeko eskatu diete, alegia, maskara jarri, bi ilara osatu, eta elkarren artean bi metroko tartea uzteko. Ondoren, Kale Nagusitik barrena joan dira Tajamarreko biribilgunera eta Geltoki kaletik behera Okendora heldu dira. Bidearen gehiena isilik egin dute, plaza ingurura heltzean aldarrikapen oihu batzuk egin dituzte.

Sakabanatuta gunea betetzen joan dira partaideak. Neurriak betetzeko eskaera errepikatu ondoren, Joxe Mari Agirretzek

hartu du hitza. "Euskal Herriko jendartearen gehiengo nabarmen bat dago konponbidearen alde, bizikidetzaren alde, bakearen alde eta euskal presoak eta iheslariak etxera ekartzearen alde. Kontsentsuak dagoeneko hor daude, helburua da kontsentsu horiek agenda politikoetara eramatea". Horregatik, gainerako eragileak deitu ditu, "agerian eta ezkutuan" daudenak, urratsak egitera. "Bada garaia pausoak emateko eta horretara dator Izan Bidea dinamika", argitu du.

Munduari bira aldarrikatzailea

Ekimen berriak euskal preso eta iheslarien egoerari irtenbidean sakondu nahi du. Erroka Euskal Herriak duen biztanle kopuru adina kilometro egitea da, hau da, 3.127.326 kilometro. "Munduari bira" aldarrikatzen dituzten eskubideak betearazteko, eta hori osatzeko elkarbizitzaren eta bakearen aldeko ibiltari sarea ehundu nahi dute. Egunerokoan konponbidearen alde pausoak egitera gonbidatu ditu bertaratutakoak. "Denen artean lortuko dugu preso eta iheslariak

etxeratzea; eta geure herriarentzat beste etorkizun bat marraztea, askatasunarekin lotua izango dena, zalantzarik gabe", amaitu du.

Jarraian, karteletan daudenen egoeraren berri eman dute. 75 egun daramatzate bisitarik jaso gabe, urrunduta daudelako, kanpokoekin dituzten harremanak nagusiki telefonoz dira, oso gutxitan, bideo deiak egin dituzte. Gainera, COVID-19aren aurka espetxeetan hartutako neurriak "eskasak" direla salatu dute. Lannemezanen dauden Aitzol Iriondok eta Ibon Fernandez Iradik dituzten bizi baldintzak gehiegi aldatu ez direla azaldu dute. Ezin dute bisitarik jaso eta hauen baldintza nahiz kopuruari dagokionean murrizketak izango direla aurreikusitakoak. Kordobako kartzelan dagoen Xabi Gallagaren kasuan, "berdintsu edo okerrago". Herrikideez gain, Patxi Ruiz preso iruindarra ere gogoan izan dute, 26 egun daramatza gose greban, horietako hamabi, egarri greban ere; baita Julen Atxurra lekeitiarra ere, buruko isuria izan duena maiatzaren 25ean.

Asensio gezurretan ari dela salatu du, berriro, GuraSOsek

Europako Parlamentuak erraustegiaren afera ikertzen jarraitzen duela azaldu du GuraSOsek ohar bidez

Txintxarri

GuraSOsek ohar baten bidez jakinarazi du, Europako Parlamentuko Eskaera Batzordeak Zubietako erraustegiaren afera "gertutik" ikertzen jarraitzen duela; horrela jakinarazi zioten maiatzaren 11n bidalitako ohar baten bidez, taldeari. Maiatzaren 28an, berriro, Jose Ignacio Asensio ingurumen diputatuak ohar baten bidez kontrakoa zabaldu zuen; hau da, Europako Parlamentuak GuraSOsen eskaera atzera bota zuela.

Horren aurrean, Asensio "gezurretan" ari dela azpimarratu du GuraSOsek: "Sekulako ezjakintasuna adierazten ari da". Jakitera eman dute Europak bidalitako oharra ez dela erresoluzioa, ezta eskaera bati egindako erantzuna izan, hain zuzen ere, Europako Parlamentuko Eskaera Batzordeak ez du gaia tratatu orain arte egindako bileretan: "Joan den apiriletik, Europako Parlamentuko Eskaera Batzordeak COVID-19arekin lotutako gaiak baino ez da lantzen ari".

GuraSOsek azaldu du Europak bidalitako oharrean Europako Parlamentuko Eskaera Batzordeko Ingurumen Zuzendaritzak egindako txosten bati erreferentzia egiten zaiola, non azaltzen duten, Ingurumen Zuzendaritza GuraSOsek eskatu bezala, Foru Aldundia ikertzen ari dela, Zubietako erraustegia dela eta: "Hortaz, ohar horren

ondorio bakarra ikertzen jarraitzen dutela da".

Asensioaren interpretazioak

Europak bidalitako oharra Foru Aldundiari Zubietako erraustegiaren inguruko kudeaketa dela eta ematen dion balizko bermeari inguruan, Jose Igancio Asensio Ingurumen Diputatuaren interpretazioa "harrigarria eta erabat interesatua" dela uste du GuraSOsek. Gaineratu du, Asensio egindako interpretazio eta emandako ikuspegi "manipulazaitetik" urruntzen dela erabat beraien irakurketa. Ikusten dute Europako Parlamentuko Eskaera Batzordeak faltan botatzen duela Foru Aldundiak hondakinen kudeaketarako planaren berrikuspena "epe legalean" egin izana, taldeak "beti" salatu duen bezala.

Asensio gaiaren inguruan zabalduko informazioa "iritzi publikoaren eta komunikabideen gaineko manipulazio larria" dela uste du GuraSOsek, baita Europako komunitateko instituzioekiko "errespetu falta ikaragarria" ere. "Asensio gezurra esaten du eta modu eskandalagarrian manipulatu du; batzuetan erabateko ezjakintasunetik abiatuta, beste batzuetan Zubietako erraustegiaren aferaren gainean ageriko inkompetentziarekin". Horren harira, Ingurumen Diputatuaren adierazpenak Europako Parlamentura eramateko tramiteak egiten hasi da GuraSOS.



Zubietako erraustegia. ERRAUSTEGIAREN AURKAKO MUGIMENDUA



Ezustekorik ezean, Lasarte-Oria ere konfinamendua arintzearen 3. fasean sartuko da datorren asteko astelehenean, ekainak 8. TXINTXARRI

Hirugarren fasean sartzeaz

Ondo bidean, konfinamenduaren arintze prozesuan beste urrats bat egingo du Lasarte-Oriak ekainaren 8tik aurrera, eta 3. fasean sartuko da. Mugikortasunean eta establezimenduen aforoan aldaketa esanguratsuak egin nahi ditu Eusko Jaurlaritzak

Iñigo Gonzalez Sarobe

Eusko Jaurlaritzak Madrili eskatu dio EAEko hiru lurraldeak konfinamendua arintzearen 3. fasera igarotzea datorren asteko astelehenean, ekainak 8, urrats hori egiteko "baldintza guztiak" betetzen dituela argudiatuta, "asistentzia-gaitasunaren zein epidemiologiaren aldetik". Osasun Ministerioak eskaera hori onartuko balu, Lasarte-Oriako herritarren eguneroko jarduna aldatu egingo litzateke. Berrikuntza bat: jaurlaritzak edukiko luke eskumena arinaldiaren 3. faseko neurriak kudeatzeko. Asteon egindako agerraldian, zenbait proposamenen berri eman du.

MUGIKORTASUNA ETA ORDUAK

Lakuak proposatzen du EAEko hiru lurralde historikoen arteko mugikortasuna "mugagabea" izatea

hurrengo fasean, ondo bidean, ekainaren 8an indarrean sartuko denean. Mugakide diren autonomia erkidegoetara joan ahal izatea ere eskatu du, beti ere guztiak arinaldiaren fase berean baldin badaude. Ikusteke dago Madrilek hori onartuko duen ala ez.

Kalera irteteko orduak dagokienez, posible izango da edozein unetan ateratzea. Hori bai, kirola egiterako orduan, jaurlaritzak asmoa du mantentzeko lehenasunezko ordutegia behar bereziak dituzten zein adineko pertsonentzako: 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 20:00etara.

EAE-KO HIRU LURRALDEEN ARTEKO MUGIKORTASUNA "MUGAGABEA" IZATEA NAHI DU LAKUAK

Herritarrei gomendatzen die ordu-tarte horietan kirola egitera edo paseatzera ez irtetea.

GARRAIOA

Garraio mota edozein delarik ere, posible izango da bidaiaren %100a joatea bertan, baldin eta maskarak jantzita baldin badaramatzate. Era berean, geltoki itxietan "ausazko temperatura kontrolak" egitea aurreikusten du jaurlaritzak.

Autoz egin daitezkeen bidaiari dagokienez, ez dute ezer berririk zehaztu oraingoz. Bigarren fasean posible zen plaza guztiak betetzea, baldin eta bidaiari guztiak elkarrekin bizi baziren. Horrela ez bazen, maskarak jantzita eraman behar dituzte, eta ilara bakoitzeko bi eserleku bete asko jota, posible den kasuetan erdiko eserlekua libre utziz.

MERKATARITZA JARDUERAK

Bezeroak artatzeko edukiera maximoak zabaldu egin nahi ditu Eusko Jaurlaritzak 3. fasean denda, taberna, jatetxe, hotel eta bestelako negozioetan. Tabernetan, esate baterako, posible izango da bezeroak barran artatzea, beti ere bi metroko tartea mantenduta euren artean. Edukiera mugarik ez da egongo lokal barruan zein terrazetan, baina mahaien artean bi metroko distantzia mantentzen jarraitu beharko dute. Jatetxe eta elkarte gastronomikoentzat ere neurri horiek proposatu dituzte.

TURISMOA

Turismoaren alorrean ere planteatzen den berrikuntzarik hurrengo faserako: hotelek eta ostatu turistikoek edukiera maximoaren erdira zabaldu ahalko dituzte gune komunak. Naturako jarduerak eta mendiko txangoak dagoeneko egin daitezke, baina 3. fasean jendetsuagoak izan daitezke taldeak, 30 pertsonara artekoak -2. fasean hogeikoa zen kopuru maximoa-, baldin eta Osasun Ministerioak onartzen badu Lakuaren proposamena.

KULTUR JARDUERAK, EDUKIERAREN ERDIRA; AIRE ZABALEKOETAN, 1.000 PERTSONA GEHIENEZ, ESERITA

KULTURA ETA UDAKO AISIA

Aire zabalean zein espazio itxietan kultur jarduerak antolatzeko irizpideen berri eman du Eusko Jaurlaritzak asteon. Proposatzen du gune irekietakoetan edukiera maximoaren %50era egitea, 1.000 lagun egotea gehienez, bi metroko distantzia mantenduz eta eserita. "Ekitaldiak eta ikuskizunak" egin daitezkeela esan du. Espazio itxietan, berriz, "hitzaldiak eta jardunaldiak". Neurriak, hauek: edukiera erdira eta 80 pertsona, ez gehiago.

Zinema, antzoki, hitzaldi-areto, auditorio eta antzeko guneek ireki ahalko dituzte ateak, besaulkiak aurrez erreserbatuta, eta edukiaren erdia gainditu gabe. Liburutegien kasuan, posible izango dute herritarrei instalazioak irekitzea materiala mailegatzeko edo irakurtzeko, baina aforoaren %50era, asko jota.

Haur eta gazteei zuzendutako aisia jarduerak antolatu eta egin ahalko dira, %50eko edukiera maximoan. Aire zabalean, asko jota, 200 pertsona; espazio itxietan, 80-begiraleak barne bi kasuetan-. Taldeek ezingo dute hamabikoak baino gehiagokoak izan, begiraleak ere zenbatuta.

KIROLA

Kirol arloan, Lakuak adierazi duena izan da eliteko kiroletan aritzen direnek, arraunlari eta pilotarietako kasu, batera entrenatzen hasi ahalko dutela. Kirol instalazioei dagokienez, Lasarte-Oriako Udalak iragarri du faseka zabalduko dituela instalazioak. Aste honetan Michelingo frontoi estaliak ireki ditu ateak; saioak banaka egin behar dituzte herritarrek, aurrez erreserbatuta. Maialen Chourraut kiroldegia izango da hurrengoa, oraindik datarik zehaztu ez duten arren.

COVID-19AREN BILAKAERA

Osasun Sailak emandako datuen arabera, ekainaren 1era arte 53 pertsonari eragin die COVID-19ak Lasarte-Orian. EAE mailan, 20.007 kasu atzeman dira -ekainaren 3ra arte-, 16.757 sendatu eta 1.561 hil -zortzi gehiago asteazkenean-. Bost kasu berri atzeman dituzte PCR test bidez, horietako bakar bat ere ez Gipuzkoan; azken egunetako joera baikorrari eutsi dio lurralde horrek. EAEko R0 birsortze-tasa 0,74koa da.



Okendo plazan elkartu dira Lasarte-Oriako Ostalaritzak antolatatu duen manifestazioan parte hartu duten herritarrik: antolatzaileek hala eskatuta, segurtasun neurriak bete dituzte. TXINTXARRI

Tabernarien aldarriak, kalean

Udalari "baldintza duinetan" euren negozioak irekitzeko neurriak eskatzeko, manifestazioa egin du Lasarte-Oriako Ostalaritzak larunbatean: herritar ugari bat egin dute deialdiarekin eta erdiguneko kaleak zeharkatu dituzte

Txintxarri

"Irtenbideak" nahi dituzte Lasarte-Oriako Ostalaritza elkarteak osatzen duten taberneak: ostalaritza negozioek pertsiana behin betiko jaitsi behar ez izan eta lanean hasteko erraztasunak ematea instituzioek. Lortu dute terrazak jartzeko espazioak handitzea eta udal-tasak 2021. urtea hasi arte ez ordaintzea, baina eskaera gehiago jarri dituzte udalaren mahai gainean: Kale Nagusia ixtea asteburuetan zenbait orduz, bertako taberneak "baldintza duinetan" irekitzeko, eta terraza jartzeko aukerarik ez dutenentzat horretarako erraztasunak ematea, negozio parean dauden aparkaleku batzuk moldatuta. Taberna batzuek, beraz, oraindik ez dute ireki, eta bada jakinarazi duenik ez duela egingo: Trumoi tabernak hori egin behar izan du, ia hiru hilabetez geldirik egon eta egoerari irtenbiderik ez ikusita. 2011n ireki zuen taberna hori Javier Morak.

Konfinamendua aritzen hasi eta horretarako aukera eduki dutenean, kalera atera dira

ostalariak, orain arte beste bide batzuetatik egindako aldarriak zabaltzera. Manifestazio bat egin dute, larunbatean eta bi orduz itxi euren negozioak, arratsaldeko seietatik zortzietara.

Okendo plazan hasi dute ibilbidea, eta 45 bat minutu behar izan dituzte osatzeko. Txilibitu soinuak eta aldarrikapenak nagusi izan dira: "Ostalaritza aurrera", "irtenbideak nahi ditugu, ez limosna", "Terraza gutxiago eta borroka gehiago"... Zumaburu bidean beteta zegoen terrazakoei protestara batzeko esan diete eta eskuorriak banatu dizkiete, baita bidean topatu dituzten herritarrei ere.

Okendora iristean, bi biribil osatu dituzte partaideek eta Aitor Salegik hartu du hitza egoeraren berri emateko. COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, bi hilabetez lanik egin gabe egon dira, ondorioz, "bakoitzaren egoera ekonomikoa kritikoa da". Ostalarien nahia horri aurre egiteko irtenbideak lortzea da, ekonomikoak, baina, bereziki,

denek ireki ahal izatea erraztuko dutenak. "Egun, Kale Nagusiak eta beste bi lokalek ezin dute terrazarik jarri, oso zaila da horrela irekitzea. Jendeak kalean egon nahi du, kosta egiten da barrura sartzea, beraz, terraza beharrezkoa da". Hori posible egiteko eta "sektorea bizirik mantentzeko" beharrezko urratsak eskatu dizkiote udalari. Krisiaren aurretik herriko ostalaritzak 400 bat lanpostu zituen, "motor ekonomiko oso garrantzitsua da".

Janari bilketa solidarioa

Herriko hainbat ostalari batu zirenetik, ekintzak egin dituzte herri mailan. Maiatzaren 11n, esate baterako, janari bilketa solidarioa antolatu zuten. Horren harira, argitu nahi dute beraiek arduratu zirela antolaketaz eta Gurutze Gorriarekin harremanetan jartzeaz, eta janaria biltzeaz ere bai. Udalarekin harremanetan jarri ziren Okendoko arkupeetan aritzeko baimena eskatzeko, eta eman egin zien, baina "ekintzaren pisua" ostalariak eraman zuten.



Larunbateko manifestariak, Kale Nagusia zeharkatzen. TXINTXARRI



Manifestazio jendetsua egin du Lasarte-Oriako Ostalaritzak herrian barrena. TXINTXARRI



Aldarrikapen ekitaldia hasitako toki berean bukatu dute: Okendo plazan. TXINTXARRI



Maskararen erabilera beharrezkoa da Oriarte BHIKko eremu guztian. TXINTXARRI



Segurtasun eta osasun neurriak jarraituz, 2. Batxilergoko ikasleak hamabosna daude gelatan. TXINTXARRI



Ikasleak patioako lehen atetik sartzen dira ikastetxera. TXINTXARRI



Ibilbideak, segurtasun tartearak... guztia seinale bidez zehaztu dute. TXINTXARRI

Ikasturteari amaiera ematen

Oriarte BHIK ekainaren 1ean ireki dizkie ikasleei atea, berriro ere. Etxea eta saio telematikoa utzi eta 2. Batxilergo, 1. Batxilergo eta 4. DBH mailetako ikasleek ikasturteko azken azterketei eta selektibitateari aurre egin beharko diete ikastetxean

Txintxarri

Bi hilabete eta erdiz klaseak telematikoki egin ostean, 2. Batxilergoko ikasleek euren etxeak utzi eta instituturako bidea egin zuten astelehen goizean. Batzuk goizeko 09:00etan, besteak 09:15ean, ikasgela fisikoetara itzuli ziren. Ez zen ohiko itzulera izan: maskara, gela, espazio komun erabilera, seinaleak, ibilbideak... Gaiekin hasi baino lehen, jarraitu beharrekotako protokoloak azaldu zizkieten ikasleei. Ondoren lanean hasi ziren guztiak ikasturteari amaiera eman edo selektibitatea prestatzeko.

Asteartean, 1. Batxilergoko ikasleen txanda izan eta asteazkenean, berriz, 4. DBHkoena. Hala ere, Oriarte BHIK gomendio bat egin die bi maila hauetako ikasleei, ikasgeletara ohiko azterketaren ikasgaiaren bat gainditzeko lana egin behar duten ikasleak soilik itzultzea, eta gainerako ikasleek,

etxetik lanean jarraitzea. Bi maila horietako ikasleek ekainaren 17an, 18an eta 19an izango dituzte azterketak.

Neurriak

Oriarte BHIK Eusko Jaurlaritzak ikastetxeen erabilera arautzeko maiatzaren 15ean bidalitako zehaztapenak beteko ditu COVID-19aren hedapena saihesteko.

Beraz, ikasle bakoitzak bere maskara eraman behar du eta ezinezkoa balitz, institutuak bermatuko die. Ikasle bakoitzak bere eskola materiala eta mukizapiak, ur botila... Eraman behar ditu.

Gainera, ikastetxeak ordutegiak moldatu ditu, hasiera, jolas-ordua eta amaiera mailakatuaz. Hala nola, 2. Batxilergoko ikasleek bi sarrera eta bi irteera daukate. Lehen txandako ikasleek 09:00etatik 14:00etara izango dituzte klaseak; bigarren txandakoek, ordea, 09:15etik 14:15era.

Eta 1. Batxilergoko eta 4. DBHko ordutegiak ikasle kopuruen arabera moldatu dituzte, ordu zentraletan ikasle kopuru handiena egon dadin. Ikastetxeko arduradunek azaldu dutenez, eraikinean 100 ikasle baino gehiago ez egoteko egin dira moldaketa guztiak.

Sarrera eta irteera guneak eta institutu barruko ibilbideak ere zehaztu dituzte seinaleen bidez. Komunean banaka sartu behar dira eta ezingo dituzte komunak klase orduetan erabili.

Era berean, instalazioak aireztatuta daude une oro eta eremu komunak maiz garbitu eta desinfektatzen ditu ikastetxeak. Neurri horiek guztiak ikasturteari amaiera emateko ezarri badira ere, hurrengo ikasturteari begira oraindik protokolo bat zehaztu ez dutela argitu dute ikastetxeko arduradunek. "Egun dauden neurriekin, zaila izango da guztia kudeatzea", adierazi digute.



Lasarte-Oria Traileko kideetako batzuk Lasarte-Oria Bai! krosek argazkian. TXINTXARRI

Lasarte-Oria Trail, lasterketen zain

Lasarte-Oria Trail elkarteko kideek irailera arte itxaron beharko dute lasterketetan hasteko. Zalantza artean, 2. Mendi Festa ere antolatzen hasi da elkarteak; ondo bidean, irailaren 27an egingo da eta mailaren arabera, hiru ibilaldi egin ahalko dira

Nerea Eizagirre

Mendia eta askatasun sententzia aldera batera utzi behar izan dituzte Lasarte-Oria Trail elkarteko kideek itxialdian zehar. Kirolariak ahal izan duten bezala moldatu dira euren etxeetan entrenamenduekin jarraitzeko. Egun pozarren daude berriro ere mendietara bueltatu ahal izateagatik eta Lasarte-Oriako Mendi Festaren bigarren edizioa antolatzeko prest agertzen dira, beti ere, dagokien erakundeek baimena ematen badute.

“Egun batetik bestera etxetik ateratzea debekatu zuten eta elkarteko kide bakoitzak bat-batean egoerara moldatu behar izan zuten”. Horrela azaldu digu Javi Olazagoitia Lasarte-Oria Trail elkarteko ordezkariak.

Elkartek egun 40 federazio-lizentzia eta 100 bazkide baino gehiago ditu. Horregatik, bakoitzaren bizi egoera ezberdina dela nabarmendu du. “Bakoitzak ahal izan duen moduan entrenatu du. Zortekoek korrika egiten jarraitu dute etxean zuten lasterka

egiteko zintari esker, besteek arrabola egin dute forma ez galtzeko, beste batzuk balkoian edo etxeko pasilloan egin dute korrika...”.

Entrenamendu zehatzik gabe, baina Interneteko bideoen laguntzaz, batek baino gehiagok forma mantentzea lortu duela onartu du Lasarte-Oria Traileko kideak. “YouTuben dauden kardio eta behe-atala lantzeko ariketek asko lagundu dute. Badakigu ez dela berdina, baina egoera honetan burua lanpetua mantendu eta formarik ez dugu galdu”.

Gainera, egoerari aurre egiteko, taldearen babesa ere izan dute elkarteko kideek. Errokan, animo bideoak edo bideo deiak egin dituztela azaldu du Olazagoitiak. “Egunero erroka ezberdinak

O FASEKO AZKEN EGUNETAN URDURITASUNA ETA ILUSIOA BATERATZEN ZIREN KIDEEN ARTEAN

bidaltzen genituen eta nahiz eta ezinezkoak iruditu, norbaitek egitea lortzen zuten. Taldeko kideen bideo edo argazkiak bidaltzen ziren animo hitzekin. Astero, gainera, taldeko bideo deia egiten genuen, elkar ikusi eta hitz egiteko. Barre batzuk egin eta herrian edo munduan gertatzen zenari buruz hitz egiten genuen”.

1. faseko kirol jarduerara aurrera eramanez ahal izan duten bakarretakoak dira eta, beraz, hainbeste maite dituzten mendi bideetara itzuli ahal izan ziren maiatz erdialdean. “Kanpoko entrenamenduak berriro egitea gozagarria izan da”, adierazi du Olazagoitiak.

Neurria jakitera eman zutenetik atzerako kontaketa izan zen eurentzat eta azken egunetan elkarteko kideen artean urduritasuna eta ilusioa bateratzen zirela nabarmendu du Lasarte-Oria Traileko kideak, baita jardunak ondorioak izan dituela ere. “Aurreko egunetan, WhatsApp taldeetan urduritasuna antzematen zen... Eta sanferminetan entzierroko atea

2. Mendi Festa prestatzen

Itxialdiaren mugak kontuan izanik, Lasarte-Oriako 2. Mendi Festa hipotetiko bat antolatzeko kontsultak egin eta atzeko lana egiten hasi dira Lasarte-Oria Traileko kideak. “Zailtasun ugari izan ditugu. Irailaren 27an antolatu nahi dugu proba eta COVID-19ak sortutako egoera dela-eta, guztia bat-batean geratu behar izan genuen. Erakundeekin akordioak, laguntzaileekin elkarrizketak eta beste gai asko...”.

Lasarte-Oria Trailen “ideia eta ilusioa” proba aurrera eramatea da. Baiorak dira baina euren esku bakarrik ez dagoela ere badakite. “Logikoki azken erabakia ez dago gure esku. Erakundeek zehaztuko digute egin ahal den. Argi dugu kirolarien osasuna eta ongizatea bermatuko dugula erabakia hartzean. Irailaren 27rako lau hilabete geratzen dira eta etorkizunari begiratuz gero, baiorak izan behar da. Gero

egunean egunean joango gara ikusten”.

Aurten hiru ibilbide ezberdin prestatu dituela jakitera eman dute:

- Ibilaldi luzea: 28,5 km eta 1400+ gogorra. Trebatuei zuzendua. Andatza-Belkoain eta Buruntzan gailurra egiten da.
- Ibilaldi laburra: 13,5 km eta 600 +. Buruntzako gailurrera igoera arina eta herrira itzulia.
- Ttipi - ttipi ibilaldia: 8 km eta 350+. Pertsona guztiei zuzendua. Azkorte ermitaraino iristen da eta izulia.

Taldeko sare sozialetan informazio gehiago eskura dezakezue.



irekitzen dutenaren modura izan da: topera eta galdutako denbora berreskuratzeko asmoz. Taldeko kide guztiek sententzia berak izan ditugu. Hasieran ilusio pila izan dugu, baina gero gihar-minak ez dizkigu inork kendu, kar, kar. Izan ere, etxean kirol egiteak edo mendian egiteak ez du zerikusirik”.

Lasterketak

Entrenamendu-eremu berreskuratuta, lasterketak noiz hasi zain daude elkarteko kideak. Lasarte-Oria Trail elkarteak bi hilabete hauetan erakunde, federazio eta lasterketako antolatzaileekin harremanetan jarraitu du. “Orain guztia etenda dago irailaren 1era arte. Proba batzuk bertan behera geratu dira eta beste batzuk datuz aldatu dute, iraila, urria...”, azaldu du elkarteko ordezkariak.

Horren harira, gomendio bat eman nahi diete elkarteko kideek lasterketetan parte hartzen duten herritarrei. “Lasterketa bakoitzak arauak ditu. Horien barruan, bertan behera geratuz gero euren jarduteko modua azaltzen dute, eta garrantzitsua da izena ematerako horiek irakurtzea. Batzuek izena ematearen %80a

itzultzen dizute; beste batzuek, hurrengo urterako gordetzen dizute dortsala. Antolakuntza egonkorra eta egoera ekonomiko onean dauden urtetako probek, ordea, %100a itzultzen dute. Baina azken hauek ez dira asko”.

Hori guztiaz gain, Lasarte-Oria Traileko Ostalaritza Lasarte-Oriak behar gehien duten familien alde antolatutako ekimenean bere harritxoak jarri zuen maitzaren 11n. Elkarteak hiru erosketa organo eman zituen. “Elkarte berria gara eta mugak ditugu. Hala ere, ekimarekin bat egin dugu, elkarri laguntzeko garaia da bizi duguna eta gure sorreran esan genuen bezala, ez gara kirol elkarte soil bat... Herriaren alde eta herriarentzat lan egingo duen elkarte gara”.

Horregatik, herritarrei mezu bat helarazi nahi diete: “Herri handia garela erakutsi dugu, garai zail honetan eskuzabala dena, eta, salbuespen batzuk kenduta, itxialdia bete duena. Orain, pixkanaka-pixkanaka, aurrera egin behar dugu, zentzuz. Distantziak mantendu, maskara eta esku larruak erabili... Arauak jarraitu behar ditugu eta horrela ez dugu atzera pausorik emango. Animo guztioi, lortuko dugu eta!”.

Iraileira arte, piloteorik ez

Eskolarteko lehiaketa guztiak bertan behera geratu ostean, LOKEko tenis atala hurrengo ikasturtera begira ari da lanean. Aurten taldekako Gipuzkoako txapelkun izan dira alebin mailan eta horrek indarrak ematen dizkie hurrengo denboraldiari begira

Nerea Eizagirre

Eskolarteko bakarkako txapelketa prestatzen ari ziren LOKEko tenis-jokalariak itxialdia ezarri zenean. Alebin mailako neskek Gipuzkoako Txapelkun izendatu berri ziren eta denboraldi amaiera ederra espero zuten. Egun txapelketa eta ikastaro guztiak etenda daude eta eskolarteko mailakoak bertan behera geratu dira. Mariasun Yurrita LOKEko tenis ataleko arduradunarekin solastu gara atalaren berri izateko.

"Ziurgabetasun handia". LOKEko tenis arduradun Mariasun Yurritak argi du, hori baita LOKE Tenis atalak hilabete hauetan bizi izan duena. "Ez dakigu zenbat iraungo duen egoera honek. Ez dakigu noiz

hasiko garen lanean, ez dakigu noiz hasiko diren txapelketak...", aipatu du Yurritak.

Eskolarteko gaztetxoekin lan egin ohi du tenis prestatzaileak. Txapelketak bertan behera geratu dira eta denboraldiko laburpen txikia egin du Yurritak. Eskolarteko txapelketetan emaitza ederrak izaten ari ziren, batez ere, alebin mailan. Nesken taldea Gipuzkoako txapelkun izan berri zen. "Oso ondo gindoazen", aipatu du Mariasun Yurrita LOKE elkarteko tenis arduradunak.

Eskolarteko mailako kirola izanik, errendimendua ez da helburu. Horregatik, itxialdian "ariketa puntualik" ez diela ezarri jakitera eman du. "Euren adinekin nahikoa dute ikastolako

online klaseak egitea", zehaztu du prestatzaileak. Hala ere gomendio batzuk egin dizkie gaztetxoei, "paseatzera irtetea, arnasa sakon hartzea, eta batez ere disfrutatzea!".

Irailean hasteko prest

Egoeraren bilakaeraren zain, eskolarteko mailako hurrengo denboraldia prestatzen hasi da eta egoerak ahalbideratzen badu, irailean hastea espero du tenis ataleko arduradunak.

Konfinamendu arintzearekin batera, Euskadiko tenis elkarte pribatuak irekitzen hasi dira eta Michelin kirol guneko pista ere ireki dute. "Bakarkakoa jokatu ahal izateko bakarrik, oraingoz binakakoak debekatuta daude", azaldu du Yurritak.



Gabriele Fernandorena Yurrita, Malen Alkorta eta Ane Imazek osatutako hirukoak alebin mailako Gipuzkoako taldekako txapelketa irabazi zuen. LOKE TENIS

Hori dela eta, itxaropentsu daude eta irailean pistan lanean egon ahalko direla uste du, baina igarotako hilabeteak buruan, zuhurtziaz jokatu behar dela argi du LOKE Tenis ataleko arduradunak. Horregatik, "tenisean bezala, pixkanaka pixkanaka, puntuaz irabazi eta

pazientziarekin" egoerari aurre egin behar zaiola nabarmendu du Yurritak.

Eta herritarrei mezu bat helarazi nahi izan die: "Egoera hau hain da konplexua... baina hau ere pasako da, hemendik aterako gara. Borroka hau irabaziko dugu".

Arintze egoeraren garapenaren zain

Xabier Gonzalez Oroimenezko ATG Lasarte-Oria txapelketaren antolatzaile ere bada LOKE tenis atala, ATG elkartearekin batera. Itxialdia ezarri zenean, Oroimenezkoaren hirugarren edizioa azken txanpara iristen ari zen.

Urtarrilean hasi zen lehiaketa. Gipuzkoa osoko 64 jokalarik osatutako koadroa izan du eta partidaz partida aurrera egin dute azken partidetaraino. Quick lehiaketako final laurdenak eta koadro orokorreko finalurrekoak jokatu behar zituzten itxialdia ezarri zenean.

Hilabetetako etenaldiaren ostean, antolatzaileek torneo amaiteko asmoa agertu dute ATGko Femin Tenak azaldu moduan. "Etenaldia ezarri zenetik, torneo amaitea dugu buruan. Jokalariek ere aurrera jarraitzeko eskatu digute, tenisean jokatu nahi dute eta".

Egoeraren garapenaren zain daude, ordea. Egun bizi dugun 2. fasean Lasarte-

Oriako kirol instalakuntzak eta tenis pista ireki dituzte eta ordua eskatuz erabili daitezke. Tenis instalakuntzak irekiko zituztela jakitean, Xabier Gonzalez oroimenezkoaren antolatzaileak udalarekin jarri ziren harremanetan euren asmoa azaltzeko. Oztopo batekin egin dute topo, oraindik ez dago baimenik txapelketa ez profesionalen jarduerari hasiera emateko. "Gobernuak baimena ematen duenean martxan jarriko dugu berriro ere txapelketa. Ez dakigu noiz izango den. Ekaina amaieran edo uztailaren izatea espero dugu", onartu du ATGko ordezkariak.

Torneoa

Urteak dira Lasarte-Oria tenis txapelketak antolatzen direnak. Duela zazpi urte, ATG edo *Aficionados al Tenis de Gipuzkoa* elkarteak hartu zuen antolakuntza. Banakako txapelketaz gain, bikotekako lehia ere izan da edizioaren batean.



Txapelketako partida bat, artxiboko irudia. TXINTXARRI

2017an, Xabier Gonzalez LOKEko tenis entrenatzailearen bat-bateko heriotzaren ondorioz, haren ohorez izena aldatzea erabaki zuten ATGko ordezkariak azaldu moduan. Era honetara, aurtengoa oroimenezkoaren hirugarren edizioa da.

Urtero, parte-hartzaile kopurua eta maila handitzen doa. Iaz 58 jokalarik eman zuten izena eta aurten 64 izan dira txapela

eskuratzeko lehiatu direnak. Horrekin batera, txapelketaren maila ere igo da.

Hala ere, era guztietako jokalariek daudela nabarmendu du Tenak. "Noizbehinka jokatzen dutenetik lau edo bost egunetan tenisean dabilzanetara".

Tenisean gozatzeko asmoz biltzen dira zale horiek guztiak txapelketetan eta orain lehiak hasteko zain gaude guztiak.

Itzuli dira zaldi lasterketak

'Salar Island' sari nagusian garaile

Ateak itxita. Zaleen hausporik gabe. Horrela ekin dio Hipodromoak udako turf denboraldiari, jarduna aldatuta, Covid-19ak eragindako krisia tarteko. Igande honetako jardunaldia, ekainak 7, baldintza horiekin jokatuko dute, eta, ziur aski, beste zenbait ere bai. Estreinaldia hotz samarra izan da harmailetan, baina ez pistan: parte-hartzaileek euren onena eman dute asteazken goizean jokaturako bost lasterketetan. *Salar Island* izeneko zaldia izan da bizkorrena proba nagusian, Vaclav Janacek jockeyak gidatuta. Hiru urtera arteko moxal arrek trostan egin dute 1.600 metroko lasterketa horretan. 11:40ean hasi da jardunaldia, eta ia ordubiak arte luzatu. Proben artean, antolatzaileek megafonia bitartez gogorarazi dizkiete segurtasun neurriak lasterketak jarraitu dituzten profesionali.



Ikusmina sortu du jockeyen janzkera moldatuak; maskarak erabili dituzte. TXINTXARRI



Zaleen animoak entzun eta sentitu ez badituzte ere, parte-hartzaileek euren onena eman dute Hipodromoan. TXINTXARRI




Jockeyak, euren zaldiak noiz iritsiko zain, euren artean tarte mantenduta. TXINTXARRI




Bost lasterketa jokatu dira lehenengo jardunaldian. Ekainaren 7koa ere, igande honetakoak, atek itxita egingo da. TXINTXARRI

PLAZAN BAZAN



ZortziKoa Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.



Itzala


Zein da trogloditaren itzal zuzena?

Entsalada bat, Hizki-zopatan

A A B A L M A A A A A A A A M B
 S S K R E A S T O M A T E A S A A
 D D J R T Z D D D G A G I D D I S
 F F U A X K O F F F F U F F T U
 G G O U A U G L G G G R G G A R
 U U N T V R U U I U E U A U U S D
 A A B Z B Y A B A O A A Z A A T A
 E E A A M T E U E E A E A E O U I
 L L W L A W S K W L L L K L L N N
 K A E K R E K Z U O L I B A K I D
 N Z I N R O I N Y H N L N I P Z I
 J T O A U L M O Z P I N A R I E J
 A A N R B J A A S J P O B I H R A
 B G I R E U E N T S A L A D O R




Entsalada hau osatzeko behar izan ditugun gai guztiak hizki anabasa horretan daude. Aurkitu.



Zein da zein
Niez ep zein

Pa! Idatzi maitasun gutun bat zure buruari. Gero, apaindu orria eta gutun-azala.



- Ea asmatzen duzun zakur bakoitzaren izena.
- ▶ Tximistek eta Piratak belarriak tente dituzte.
 - ▶ Bihurriren eta Feldespatoren isatsak luze eta iletsuak dira.
 - ▶ Alaitzek eta Bihurrik bibote luzeak dituzte.
 - ▶ Pitxitak bibote motzak ditu.
 - ▶ Feldespatok eta Tximistek mihia agerian dute.

Zer dira aurpegiak ahorik gabe... Zer pentsatzen ari diren asmatzea zaila da, ezta? Marraztu iezaezu zerbait maskaran, alai daudela eman dezan.


Bai alai!



KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Arooa
Zorionak zure kuadrilaren partetik!!!! Maite zaitugu ponpoxa!!!!




Eneko eta Ekain
Zorionak bikote familia osoaren partetik. Muxu haundi bat.




Iker
Urtebete gehiago! Espero dut beti bezain alai izaten jarraitzea, irribarre eder horrekin. Zorionak Iker!

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 5




Larunbata, 6




Igandea, 7




Astelehena, 8




Asteartea, 9



Asteazkena, 10



Osteguna, 11



ONGIETORRI TXIKIAK



JAIOTZAK

Ziyi Jiang. Maiatzaren 29an.
Muhammad Shahzaib Naem. Maiatzaren 24an.

HILDAKOAK

Maxima Lopez Gascon. Maiatzaren 31n.
Manuel Lopera Santiago. Maiatzaren 30ean.
Luis Olaciregui Olano. Maiatzaren 29an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 5 DE ORUE
LARUNBATA, 6 ACHA-ORBEA
IGANDEA, 7 ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 8 DE MIGUEL
ASTEARTEA, 9 LASA
AZTEAZKENA, 10 GIL
OSTEGUNA, 11 ACHA-ORBEA

EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLEDGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERRI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Posta bidezko bozka

Uztailaren 12an, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak ospatuko direla eta, Lasarte-Oriako hainbat alderdi politikoek posta bidezko botoa tramitatzeko laguntza eskaini diete egun horretan bozka ematera joan ezin diren herritarrei. Uztailaren 2ra arte egin daitezke.

EAJk bi bide jarri ditu herritarren eskura: 943 363 409 telefonoa eta 652 706 820 WhatsApp zenbakia. Posta bidezko bozka erabiltzeko asmoa duten herritarrek izen-abizenak, NAN zenbakia, jaiotze-data eta botoa emateko dokumentazioa jaso nahi duen posta-helbidea adierazi beharko dute.

PSE-EEK bere egoitzan, Gambo 1 behea, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara eskainiko du laguntza zerbitzua. Beste ordutegi batean egin ahal izateko hitzordua eskatu beharko da. Gaixo edo etxetik mugitu ezin diren herritarrek, notarioak ziurtatuta etxetik egin ahalko dute bozka. Tramitazio hori egiten ere lagunduko dute alderdi sozialistako kideek. Argibide gehiago eskuratzeko edo zalantzak argitzeko 943 372 869 telefonoa jarri dute herritarren eskura.

SUDOKUA

4	5			7	9	
			1	4	3	8
		1		2		4
			9	3		7
	2		7		4	1
9	6	7				2
	8	9			7	
2		5	6		8	4
3				1		5

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA
Lasarte-Oriako bi neska gazte gara; udaran haurrak zaintzeko prest gaude. Haurrek udaran eskolako errefortzu lanak egin nahi balituzkete ere prest egongo ginatete laguntzeko. Deitu edo bidali whatsapp bat zenbaki hauetara: 688 777 280 edo 610 325 280.

Lan bila ari naiz Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila asteburuetarako Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN
Udarako hilabeteetarako etxea alokatzen da, Punta Umbrian, Huelvan. Bi igerileku eta padel pista ditu. Garajea barne. 943 376 115/615 645 126

SALEROSKETAK

SALDU
Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 300 euro. 646 824 466.



NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publikizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publikizitatea@ttakun.eus 646.824466

GUTUNAK

UDALTZAINEN ERANTZUNA DELA-ETA

Garazi Fernandez Txapartegi eta familia

Egunkari eta sare sozialetan azaldu den ohar onartezinaren aurrean erantzutera behartuta nago, gertatutakoa ahaztu eta bertan behera utzi nahi izan dudan arren, ni gezurtizat uzten saiatu direlako.


Garazi Fernandez Txapartegi naiz, eta gure etxean sartu zirenean galdetu ez zidaten arren, ondo dioten bezala 25 urte ditut. Jarraian zehaztutakoak nire izenean eta Fernandez Txapartegi familiaren izenean egindakoak dira.

Maiatzaren 14ean hiru udaltzain gure etxera etorri zirenean, behin baino gehiagotan galdetu arren ez zidaten eman gertatzen ari zenaren berri, eta inolako arrazoirik eman gabe balkoraino sartu ziren. Egoera honek ziurgabetasuna, babesgabetasuna eta ezintasuna eragin zizkidaten.

Nik ez nekien zergatik etorri ziren gure etxera baina agenteek aldiz, bai. Izan ere, deseskalada garaian denok bete behar ditugun arauetako bat ez zuten bete Lasarte-Oriako hiru udaltzainek kafe bat hartzen ari baitziren ZUTIK taberna bateko terrazan. Udaltzainek ondo dakite hau horrela gertatu zela eta ondoren jarraian zehaztutakoak ere bai:

- 1.- MASKARARIK GABE eta DISTANTZIA SOZIALA errespetatu gabe sartu ziren gure etxean.
 - 2.- Beren presentziaren ZERGATIA AZALTZEKO eskatu nien arren erantzunik ez nuen jaso: tarte horretan makina bat pentsamendu txar izan nituen ez bainekien nire familiako norbaiti zer bait gertatu ote zitzaion.
 - 3.- Tratua MEHATXUGARRIA eta TXULESKOA izan zen.
- Guk ez dugu gezurrik esan. Gertakariak kontatzen ditugun bezala gertatu ziren. Argi dago, jokabidea zuzena izan balitz ez genukeela inolako gutunik idatziko. Era berean, begi bistakoa da zuen irudia garbitu nahian zaudetela jarduera erabat irregularra izan baitzen.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:00	10:10	10:15	10:20
10:30	10:40	10:45	10:50
11:30	11:40	11:45	11:50
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

- 12 plaza erabilgarri izango ditu.
- Segurtasun tartea mantendu beharko da, nahitaezkoa izango da maskara (bakoitzak bera eraman beharko du)
- Txartelarekin bakarrik ordaindu ahal izango dute

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galarri, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Tokiz aldatu dute asteazkeneroko azoka

Euria eta erosleak, barra-barra

Asteazkeneroko azoka Andatza eta Aralar plazetara tokiz aldatzea erabaki du Lasarte-Oriako Udalak, zerbitzua hobeto kontrola dezakeelakoan, aire zabaleko espazio batean. Azken asteetako postu-muga ezabatzea erabaki du, eta koronabirusaren krisia lehortu aurretik lanean ari ziren saltzaile ugari ere salgai jarriko dituzte produktuak hemendik aurrera: barazki eta fruta freskoa, esnea, hestebeteak, ogia, olio...eta beste hainbat. Herritarrek plaza horietara joan beharko dute hemendik aurrera.



Herritarrek, postu batean erosteko ilara egiten. TXINTXARRI



Andatza eta Aralar plazetan jarriko dituzte saltzaileek euren postuak hemendik aurrera. Zerbitzua "hobeto" kontrolatu nahi du udalak. Eguraldia goibela eta euritsua izan bazen ere, herritar ugari ibili zen. TXINTXARRI

EPA LASARTE HHI 2020-2021 ikasturtea

INTERESATUAK DEITU EKAINAREN 17TIK AURRERA

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza (DBHko titulua lortzeko moduluak).**
- **Gaztelania atzeritarrentzat.**
- **EUSKARA (0-1-2 mailak).**



Deitu informazioa jasotzeko!
ekainaren 17tik aurrera

Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus

ARGI URDINETIK BABESTEKO
EKIPAMENDUA
BETAURREKOA
+
LENTILLAK
(6 hilabete)

199€

BaliOgarria 2020/07/31 arte. Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

BABESTU ZURE BEGIAK PANTAILETATIK



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multioplicas.com   